

*Mañula Iantzi Telletxea*

*Lesaka,  
Nafarroa  
(1925-2018)*

Aurkibidea

**Biografia**



Lesakan sortu zen, Buxkon  
bordan. Ama Lesakakoa zuen.  
Aita, Oitzekoa, gazterik  
Lesakara joan zen.

# Zintak

## LES-018

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-06-28
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

## LES-019

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-06-28
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

# Pasarteak

## 1. Baserriko lanak

- **Erref:** LES-018/001
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:00:03. **Bukatu:** 00:02:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Senideen artean hamaikagarrena zen; nagusiak kanpora lanera bidaltzen zituzten (zerbitzatzailea) eta gazteenak (lau) baserrian izan ziren beti lanean. Baserriko lanei buruz mintzatzen da: laborantza egiten zuten: artoa, ilarra eta patata, besteak beste. Azienda ere bazuten eta behiak, txerriak, eta abar bazkatzeko behar zituzten. Aita itzaina zen. Hamaika urte zituela amarik gabe gelditu zen. Opilak eta altzaria ere egiten zituen: ilar gorria eta patata batez ere eta jaietan, berriz, garbantzua. Ura ekartzea ere eguneroko lan bat zen. Esposatu arte ez zen baserritik atera.

## 2. Gaietako eta beheko sarrera

- **Erref:** LES-018/002
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:02:29. **Bukatu:** 00:03:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Baserri handia zen. Sarrera nagusia gainetik zegoen eta, beheetik, ukuiluen.

## 3. Gerran eta gerraostean, miseria

- **Erref:** LES-018/003
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:03:43. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Gerra eta gerraostean miseria izan zen. Errazionamenduan ematen zieten ogia ezkurerekin egin zela erraten zuten. Jaietan bakarrik jaten zuten oilaskoa. Hiru ume zituelarik, bere senarrak Berako fabrika lan egiten zuen; han ematen zieten errazionamendua hilabetero: besteak beste, olio, arroz, garbantzua eta azukre pixka bat.

**4. Errotak itxi ziren**

- **Erref:** LES-018/004
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:07:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Gerra denboran errotak itxi ziren. Arantzakoa, berriz, gauez irekitzen zuten eta hara joaten zen inguruko jendea. Baina, errotaria denuntziatu zuten eta kartzelara eraman zuten. Bere anaiak etxean egin zuen errota bat, artoa xehatzeko; ondoren, zetabeatik iragazten zuten

**5. Errekisak (konfiskazioak)**

- **Erref:** LES-018/005
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:07:56. **Bukatu:** 00:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Errekisei (konfiskatzei) buruz mintzatzen da. Udaletxera hainbat kilo ilar eta arto eraman behar zituztela abisatzen zieten. 30 urteren buruan, konfiskatutako jakiak herriko jauntxoek jaten zituztela enteratu ziren (frontera ez zituztela bidaltzen). Bere aita asto eta behiekin soldaduei mantak-eta eramatera behartzen zuten.

**6. Soldadu bat hil zuten**

- **Erref:** LES-018/006
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:12:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Soldadu "rojo" bat hil eta herrira ekarri zuteneko istorioa kontatzen zion bere lagun batek.

**7. Presoak**

- **Erref:** LES-018/007
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:12:21. **Bukatu:** 00:15:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Presoei arto irina ematen zieten ezkutuan (aitak jakin gabe) toalla zurien truke; toalla horiekin gonak egiten zituzten. Presoak oso egoera txarrean bizi ziren, erdi-oinutsik izaten ziren. Erreketeren menpe zeuden eta "salbajada ikaragarriak egiten zizkieten prisioneroei". Preso hilak ere izaten ziren (Lesakan bi lurperatu zituzten). Artikutzarako errepidea egin zuten

**8. Kamioian preso eraman. Bikarioaren bitartekotza**

- **Erref:** LES-018/008
- **Iraupena:** 0:06:04. **Hasi:** 00:15:23. **Bukatu:** 00:21:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Lesakan bizi zen Oiartzungo gizon batek kontatutakoa azaltzen du. Oiartzunen preso hartu zuten eta kamioi batean ekarri zuten Lesakaraino; plazan azienda lotzeko aroetara lotuta utzi zituzten presoak eta Lesakako beste zenbaiten bila joan ziren erreketek: besteak beste, bi neska gazte (errepublikarrak), bi gizon eta bi zahar. Guztiak kamioian sartu eta Iruñera eraman zituzten. Bidean, neska gazteak "si los curas y frailes supieran..." abestia kantatzen hasi ziren eta soldaduek bertan hilko zituztela esaten hasi ziren. Lesakatik Iruñera preso eraman zituztenak fusilatuko zituztela esaten zen. Bikarioa Iruñera joan zen ez fusilatzeko eskatzeko eta salbatu zituen. Senarra eskapatu zelako eraman zuten haurdun zegoen emakume bat preso; senar-emazte zaharrak ere hiru semeak eskapatu zirelako eraman zituzten.

**9. Bartzalekuko fusilatuak**

- **Erref:** LES-018/010
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:22:55. **Bukatu:** 00:27:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Baserritar batek kontatu zion Iturengo medikua, Berako gizon bat eta hirugarren bat Bartzalekun fusilatu zituztela. Urte batzuk pasatuta kontatu zion gizonak, bere baserrira odolkiak egiten laguntzera joan zenean. Baserrian, gauetz, tiroak entzun zituzten eta gero, bi orduz, gizon baten oihuak, laguntza eskatzen; bera baserritik atera eta laguntza ematera joan nahi zuen, baina bere emazteak ez zion utzi, hilko zutelakoan. Bestaldetik, bere aitak herriko igeltzero guztientzat harea ekartzen zuen handik, Bartzalekutik (seme-alabak laguntzera joaten ziren askotan). Behin, karroan zihoazela, behiak gelditu ziren eta zapata baten muturra ikusi zuen, lurra mugitu eta hanka bat ikusi zuen. Ordutik aurrera beste zonaldera joaten zen harea bila.

**10. Seboa**

- **Erref:** LES-018/011
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:27:18. **Bukatu:** 00:30:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Behi zaharrak eta eriak hiltzen zituzten hiltegian soldaduentzat. Jende guztia seboa erostera joaten zen goizean goiz harategira, errazionatuta baitzegoen. Bere ahizpa nagusiak (neskato egona eta ama hil zenean etxera itzuli zenak) sebo erostera bidali zuen eta errenkadan jarri zen, baina lokartu zen eta deus gabe gelditu zen. Seboa olioaren ordeaz erabiltzen zen.

**11. Mezarako zapatak txandaka**

- **Erref:** LES-018/012
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:31:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Anai-arreben artean zapatak txandaka ibiltzen zituzten mezara joateko. Bat seietako mezara joaten zen eta bestea hurrengora, eta bidean aldatzen zituzten zapatak.

**12. Oinutsik**

- **Erref:** LES-018/013
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:31:12. **Bukatu:** 00:31:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Gerraostean oinutsik ibiltzen ohi ziren, espartinik ez zutelako.

**13. Anekdotak. Ogirik gabe**

- **Erref:** LES-018/014
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:31:51. **Bukatu:** 00:33:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Hogei urte zituela, ogia razionatuta zegoen eta egunero okindegian erosten zuten. Bere anaia soldaduskara joan zen egunean ogiarekin gertatutako anekdota kontatzen du.

**14. Eskolara hagitz gutxi**

- **Erref:** LES-018/015
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:33:14. **Bukatu:** 00:36:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Eskolara hagitz gutxi joan zen. Baina dotrinara egunero joaten ziren hamaiketan. Mojek ematen zuten gau-eskolara joaten hasi zen gero, baina hiru hilabeteko ikastaroa besterik ez zen. Amaitu zenean, medikuaren izebak esan zion egunero bazkal ostean haren etxera joateko eta lezio bat emanen

ziotela. “Erderaz leitzen, eskribitzen eta restar, multiplicar y dividir” ikasi zuen etxe hartan.

## 15. Igande arratsaldeak. Trena

- **Erref:** LES-018/016
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:36:03. **Bukatu:** 00:39:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Neska koskorra zela, igande arratsaldetan errepidera paseatzera joaten ziren. Ortzegunetan merkantzia-tren handia pasatzen zen eta hura ikustera joaten ziren. Igandetan, berriz, bagonetan sartzen ziren eta trenbidean alde batera eta bestera ibiltzen ziren. Baina jendea enteratu zenean, albintiarengana (aguazila) joateko eta koartelera deitu zituzten guztiak. “Albintiak egiten zion justizia herri guztiari”; “mamurru” izengoitiz paratu zioten. Kuartelean guardia zibilek hurrengoan eskuak lotu eta kartzelara betiko eramanen zituztela erran ondoren, ez ziren gehiago joan.

## 16. Udan igeri egitera

- **Erref:** LES-018/017
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:39:58. **Bukatu:** 00:42:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Errota ondora joaten ziren udan igeri egitera. Aita siestara joaten zenean korrika abiatzen ziren ibaira; han errotako 12 senideak izaten ziren jada. Hainbeste haur eta gazte zeudenez, ura “txokolate bezala” jartzen zen.

## 17. Jostetak 1. Kantak

- **Erref:** LES-018/018
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:42:20. **Bukatu:** 00:44:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

#### Laburpena:

Tortolosean aritzen ziren, “maxurrak” erraten zieten. Lurrezko “harri borobilekin” (puxtarriak) ere jostetan aritzen ziren (baten batek kristalezkoak zituen). Soka saltoan aritzeko, eskolan erakutsitako abestia kantatzen du: “las campanas de Tetuán piden pan...”. Eskolan “cara al sol” irakatsi zieten eta egunero kantatzen zuten dotrinara joaten zirenean.

## 18. Maisuak jotzen zion euskaraz mintzatzeagatik

- **Erref:** LES-018/019
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:44:22. **Bukatu:** 00:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

**Laburpena:**

Bere anaia eskolatik eskapatzen zen, maisuak jotzen ziolako euskaraz egiteagatik. "Habla en cristiano" erraten omen zion eta eskuan eta buruan jotzen zien makil batekin ikasleei.

**19. Jostetak 2**

- **Erref:** LES-018/020
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:47:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

"Kunkiri-kordaka" (gordeka) jostatzen ziren. Zotz egiteko erraten zutena: "han butz hiretako haren butz". "Sorginka" ere aritzen ziren.

**20. Beste herritako bestetara**

- **Erref:** LES-018/021
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:47:25. **Bukatu:** 00:49:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Bera, Arantza eta Igantziko bestetara joaten ziren oinez. Behin Igantziko bestetara eskapatu ziren, aita ez baitzien uzten, eta leihotik atera ziren. Herriko batzuek bizikleta zuten eta batzuetan barran eramaten zituzten.

**21. Sorginak 1**

- **Erref:** LES-018/022
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:49:20. **Bukatu:** 00:53:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Bere ahizpak sorginekin sinesten zuen, berak ez. Zortzi urte zituela, gauez soinu arraro batzuk entzun eta aita sorginak zirela esan zien; baina, geroago, soinu berak entzun zituen egunez eta karro batek egiten zituela ikusi zuen. Bera jaio aurretik, ahizpa bat eritu zen; zortzi hilabete besterik ez zituen eta sehaskatik atera nahian omen zebilen. Apeza deitu zuten eta honek sorginak zirela erran zuen. Ebanjelioa eman zion hainbat aldiz bederatzi egunez sendatu omen zen.

**22. Sorginak 2**

- **Erref:** LES-018/024
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:53:18. **Bukatu:** 00:54:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Sorgina fama zuen emakume bat zen. Berak saldutako esnea edan ondoren

haur bat eritu zen. Eguraldi txarra zela-eta, etxe-mazela erori zen, baina emakumea pareta batetatik zintzilik gelditu zen eta bere azienda salbatu zen. Istorio biak kontatzen zizkion bere ahizpak, sorginak bazirela erakusteko.

### 23. Sorginak 3

- **Erref:** LES-018/025
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:54:53. **Bukatu:** 00:56:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Sorginek animalien forma hartzen zutela erraten zen. Auzokide batek kontatzen zuenez, Zalain aldera andregaietara joaten zirenean, zaldi handi batzuk ikusten zituztela, eta sorginak zirela. Baina gero hasi ziren erraten hango mutilek egindako trukua besterik ez zela. Katu beltzak sorginak zirela erraten zen. Sorgina ikusiz gero, behatza gurutzean paratu behar da.

### 24. Sorginak 4. Intxixuak

- **Erref:** LES-018/026
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:56:58. **Bukatu:** 00:59:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Sorginak, hiltzen ari zelarik, norbaiti pasa behar zion sorginkeria. Aitak kontuz ibiltzeko erraten zien. Sorgina jotzen bazen, nola egin behar zen azaltzen du. Intxixuak erraten zieten ere sorginei. Mari Grazi emakumea intxixu zela erraten zuen bere ahizpak; beti gona beltz luzez jantzita joaten omen zen.

### 25. Sorginak 5. Lamiak

- **Erref:** LES-018/028
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:59:40. **Bukatu:** 01:01:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Lami-zuloa non dagoen azaltzen du. Lamiak hortik sartu eta Zalain-zokoan ateratzen omen ziren. Lamiak emakumeak ziren, baina animalien forma hartzen zuten.

### 26. Sorginak 6

- **Erref:** LES-019/002
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:00:18. **Bukatu:** 00:01:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Aitak sorginei buruzko istorioak kontatzen zizkien. Sorginak printzesaz jantzita edo animalien (asto, zaldi, katu...) forma hartuta ateratzen omen ziren. Katu

beltzek ondorio txarrak ekartzen zituztela erraten zen. Gaueko hamabiak baino lehenago oilarrak kukurruku egiten bazuen, sorginak zirela erran nahi zuen; gatza sutara bota behar zen orduan.

## 27. Animak

- **Erref:** LES-019/004
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:02:12. **Bukatu:** 00:02:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Purgatorioan zeuden animentzako mezak ateratzen ziren. Sorginak bazebiltzatenean, animaren bat purgatorioan zela erraten zen eta mezak ateratzen zituzten.

## 28. Don Juan apeza 1. Arrautzak

- **Erref:** LES-019/006
- **Iraupena:** 0:05:14. **Hasi:** 00:03:03. **Bukatu:** 00:08:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Saldiasko Don Juan Bautista apezaren istorio bat kontatzen du. Apezaren etxean oiloak zituzten eta arrautzak saltzen zituzten. Berak ikusten zituen oiloak apezaren etxera joaten zenean bulen bila. Ondoko etxean bizi ziren aberatsek arrautzak erosten zizkieten beti, baina, bapatean, arrautzik ez zuela esaten hasi zen apeza. San Antonera meza ematera joaten zenean gipuzkoarrei saltzen zizkien, sos gehiagorengatik. Baina aberatsei haxe esan zien: "ez digu kontzientziak agintzen zuei aurrutza hoiek saltzea, gorpuztik egiten duguna bildu eta oiloei ematen diegulako jateko".

## 29. Don Juan apeza 2. Oiloak ebatsi

- **Erref:** LES-019/008
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:08:24. **Bukatu:** 00:09:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Aitak kontatzen zien istorio bat azaltzen du. Apezari astero oiloren bat ebasten zioten eta, etsita, pulpitutik oihuka hasi zen: "oilok ebasten dituen pertsona hori kondenatuta dago eta, gainera, Jaungoikoak ezpainetan luma bat paratzen dio". Hori entzutean, bat eskuak ezpainetik pasatzen hasi zen eta apezak "hi haiz lapurra" erran zion.

## 30. Don Juan apeza 3. Ataka ebatsi

- **Erref:** LES-019/009
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:09:56. **Bukatu:** 00:10:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Don Juan apezari alorreko ataka ebatsi ziotenean, zera esan zuen sermoian: "badakizue Jaungoikoak dena ikusten duela eta bere kastigua ematen duela; eta nire ataka ebatsi duena kondenatuta dagoela, bere tokira itzultzen ez badu". Hiru egunen buruan, ataka bere tokian paratu zuten berriz.

**31. Don Juan apezak 4. Ama Birjina**

- **Erref:** LES-019/010
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:10:48. **Bukatu:** 00:11:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Don Juan apezak San Antonen emandako sermoia: "Ama Birjina da gauza bat izugarria ona, hori ezin da erran eta sinetsi, konparaziotara, badakizue zerrien kostilla zein ona den, bada, hura baino anitz hobea da Ama Birjina"

**32. Sagardoa egiten zuen apezak. Maritxuak**

- **Erref:** LES-019/011
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:12:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Herriko beste apez batek sagardoa egiten zuen eta mutil gazteei ematen zien igande arratsaldetan. Maritxu zela erraten zuten. Baziren beste gizon batzuk maritxu edo "marikitak" zirela erraten zutenak; oso gaizki ikusiak ziren. Bere anaiaren koadrilako maritxu bati zer egiten zioten kontatzen du.

**33. Ama ezkongabeak**

- **Erref:** LES-019/013
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:12:56. **Bukatu:** 00:14:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Ama ezkongabeak erabat baztertzen zituzten lehen, putatzat hartzen zituzten. Inklusara eramaten zituzten haur bastart asko. Batzuetan, gizon zahar edota alargun batekin ezkontarazten zuten ama.

**34. Toberak jo**

- **Erref:** LES-019/014
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:14:12. **Bukatu:** 00:15:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Senar-emaztegaiei toberak jotzen zizkieten ezkontza-bezperan, ilunabarrean. Abesti bat kantatzen zieten: "ohea jantzia dago, bi almohadakin, nobia jertzateko, nobio jaunakin".

**35. Arropa**

- **Erref:** LES-019/016
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:15:54. **Bukatu:** 00:17:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Bestetarako egiten ohi zuten soin berria, baina ez beti. Soineko hori igandetan eta bestetan jantzen zuten soilik, herrira joateko. Udan, elizan sartzeko mahuka-erdiak ("mangitoak") erabiltzen zituzten. Neguan kakorratzez egindako txaketak erabiltzen zituzten. Arropa oso ongi aprobetxatzen zuten.

**36. Barneko-arropa**

- **Erref:** LES-019/017
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:17:22. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Jostunek bularretakoak egiten zituzten maindire zaharrekin. Berak, esposatu arte, ez zuen bularretakorik izan.

**37. Hurrei hortza erortzen zitzaielarik**

- **Erref:** LES-019/019
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:18:14. **Bukatu:** 00:19:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Haurrari lehenengo hortza mugitzen hasten zitzaionean, amatxik edo aitatxik soin bat oparitu behar zioten. Hortza erortzen zenean, almohada (burko) azpian jartzen zen eta gero sutara botatzen zen.

**38. Sinesmenak. Petrikiloak 1**

- **Erref:** LES-019/020
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:22:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):****Laburpena:**

Igantzik mugan eta Lesakan bertan baziren orazioak (errezoak) egiten zituzten emakumeak, "kuranderak" ziren (petrikiloak); sorginak erraten zieten. Herriko neskak bati aho ondoan kalitxa bat ateratzen zitzaion eta Irungo petrikiloarengana eramane zuten; otoitza egin zuen eta baselina eman zion;

bederatzi egunez ordu zehatz batean errezoa eginen zuela erran zion.  
Seigarren egunean kalitxa erori omen zitzaion neskatzari.

### 39. Sinesmenak. Sugeen ausikientzat

- **Erref:** LES-019/022
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:23:31. **Bukatu:** 00:24:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Bere aitak orazioa egiten zuen sugeen ausikientzat; besteak beste, aitagurea aldrebez esaten zuen.

### 40. Sinesmenak. Petrikiloak 2

- **Erref:** LES-019/024
- **Iraupena:** 0:00:18. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:25:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Petrikiloek, sorginek, belarrekin erremedioak egiten zituzten.

### 41. Sinesmenak. Tropesiarentzat

- **Erref:** LES-019/026
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:25:19. **Bukatu:** 00:27:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Igantzirako bideko baserri bateko emakume batek (Maria izenekoa) tropesiarentzat (tripa hazitzen delarik) orazioa egiten zuen. Bere ahizpa behin joan zen: gerrian zinta bat jarri eta bederatzi egunez orazioa eginen zuela erran zion; pastelak ere bedeinkatzen zituen eta egunero ordu zehatz batean puska bat jan behar zuen eta zintari korapilo bat egin. Anekdotak bat kontatzen du: neska gazte bat tropesia zuela-eta Mariarengan joan zen, baina tripa hazitzen jarraitu zitzaion, haurdun zegoelako.

### 42. Erremedioak. Min horia kentzeko

- **Erref:** LES-019/028
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:27:38. **Bukatu:** 00:30:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Min horia kentzeko belarrak erabiltzen ziren; zorriak ere jaten ziren min horia kentzeko (haurrei esnean sartzen zizkieten). Bere koinatak zorriak kentzeko likido bat ekartzen zion Bilbotik.

### 43. Erranak. Azazkaletan orban zuriak

- **Erref:** LES-019/030
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:30:37. **Bukatu:** 00:30:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Azazkaletan orban zuriak ateratzen direnean, gezurrak esan dituzula erran nahi du.

### 44. Mondongera 1. Odolkiak

- **Erref:** LES-019/032
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:31:03. **Bukatu:** 00:32:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Mondongera ibiltzen zen etxez etxe. Mondongera batek erakutsi zion gaztea zelarik. Odolkiak nola egiten diren azaltzen du: lehenengo arroza eta tipula prestatzen ziren; zerria hiltzen zutenean, berriz, odola hartzen zen (gelditu gabe eragin behar zitzaion).

### 45. Mondongera 2. Odolkiak

- **Erref:** LES-019/034
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:33:02. **Bukatu:** 00:38:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Odolari aurretik egositako arroza eta tipula botatzen zitzaion; gatzatu eta espezia bi besterik ez zizkion botatzen: piper-beltza eta kanela (ez perrexilik, ezta oreganorik ere). Zerriaren urin pixka bat eta bestelako haragi zatiren bat ere botatzen zizkien odolkiei. Urinekin gantzigorak egiten zituen. Hesteak errekan garbitzen zituzten. Onilarekin bete, lotu eta egosten zituzten (orratz batekin zulatzen zituzten odolkiak).

### 46. Mondongera 3. Lukainkak eta birikak

- **Erref:** LES-019/035
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:38:12. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Lukainkak nola egiten ziren azaltzen du. Birikak egiteko berak ez zituen birikak aprobeztatzen (bihotza eta bestelako zati "itsusiekin" egiten zituen).

### 47. Zerrikia eta lukainkak nola kontserbatzen ziren

- **Erref:** LES-019/037
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:40:07. **Bukatu:** 00:42:39

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Gantzan edota olioan paratzen ziren solomoak eta lukainak; eltzetan sartu aurretik zartagian buelta bat ematen zieten. Solomoak adoboan (baratxuri, gatz eta uratan) edukitzen zituzten lehenik 24 orduz; gero zapi batekin idortu eta piper-gorri eta ozpinarekin igurtzen zituzten; soka batetik zintzilikatzen zituzten idortzeko eta, azkenik, xerratzen zituzten, gantzan eta olioan sartu aurretik.

#### **48. Azpiak gatzetan paratzen ziren kontserbatzeko**

- **Erref:** LES-019/038
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:42:39. **Bukatu:** 00:44:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Azpiak eta "espaldak" gatzetan paratzen ziren. Noizbehinka buelta eman eta ateratzen ziren. Gainean harri handi batzuk paratzen zituzten. Ateratzen zirenean, urarekin garbitzen ziren, zapi batekin idortu, ozpin eta baratxuria igurtzi (baita piper-gorria) eta, azkenik, zintzilikatzen ziren, zaku batzuetan sartuta.

#### **49. Zerri guztia aprobetxatzen zen**

- **Erref:** LES-019/039
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:44:38. **Bukatu:** 00:45:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Zerri guztia aprobetxatzen zen. Patak (hankak) eta belarriak inauteak arte edukitzen ziren gatzetan; bi egun lehenago uretan paratzen ziren (bakailaoa bezala), gero sukaldean zintzilikatzen ziren eta saltsan egiten ziren.

#### **50. Presenteak (puskak) banatzen ziren**

- **Erref:** LES-019/040
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:45:47. **Bukatu:** 00:46:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Zerria hiltzen zutenean, presenteak (puskak) banatzen zituzten plater batean: besteak beste, bi odolki, mazela bat urdaia eta gibel pixka bat. Haurrak joaten ziren puskak partitzera, bi sos ematen zizkietelako etxetan.

#### **51. Zerri-hiltze eguna, festa eguna**

- **Erref:** LES-019/041
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:46:57. **Bukatu:** 00:48:44

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Zerri-hiltze eguna festa eguna zen. Zerria hil ondoren, gosaltzera joaten ziren gizonak (bera ez zen inoiz joan, odolkiekin ari baitzen).

## **52. Zerria hiltzeko ilargiari begiratu**

- **Erref:** LES-019/042
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:48:44. **Bukatu:** 00:50:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Aunitzek ilargiari begiratzen zioten zerria hiltzeko. Ilbeheran eta ilberrian hildako zerriekin proba bat egin zuen: urdai zati bana egosi eta ilberrian hildakoa txikitzen zela ikusi zuen

## **53. Mondongera eta hilerokoa**

- **Erref:** LES-019/043
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:51:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Erraten zuten mondongerak ezin zuela hilekoarekin egon, baina berak ez zion erranari kasurik egiten. Errana gezurra dela konprobatu zuen.

## **54. Haurra izan ondoren. Elizan sartzea**

- **Erref:** LES-019/044
- **Iraupena:** 0:04:52. **Hasi:** 00:51:44. **Bukatu:** 00:56:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Emakumeek haurra izan ondoren ezin zuten etxetik atera, elizan sartu arte. Hala ere, nahitaez atera behar bazen, buruan teila bat paratu behar zuen. Aurreneko zortzi egunak ohatzean egoten ohi ziren, mugitu gabe eta jan gabe, oilo-salda edaten zuten bakarrik; gizonak, berriz, oiloa jaten zuten. Elizan-sartzea zer zen azaltzen du: eliza atarira mantelina jantzita joan behar zuen ama haurrarekin (emagina ere joaten ohi zen); han apezak otoitza egiten zuen eta haurrari trapu bat paratzen zion buruan. Ondoren, eliza barrenera sartzen ziren. Jatorrizko bekatua omen zen. Aurreneko haurra izan zuenean, baba biltzera atera zen teila buruan zuela.

## **55. Zalain Zoko Lesaka da. Errandonea familia**

- **Erref:** LES-019/045
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:56:36. **Bukatu:** 00:58:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

**Laburpena:**

Errandonea pelotaria Zalain Zokon (Lesakan) jaio zen, baina Berakoa zela erraten zuten. Bere arreba Lesakako idazkaria izan zen.

---

Iantzi Telletxea, Mañula | ahotsak.eus Orr.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com